

Microsoft Authenticator aplikazioa konfiguratzeari

Microsoft Authenticator app-a aktibatzea eta Office 365-eko plataforman sartzea app horren bidez


Segurtasunagatik, Osakidetzaren inguruko Microsoft Office 365-eko kontu guztiek aktibatuta dute segurtasuna, bi faktoreko autentifikazioaren bidez. Horrela, hodeian lan egiteko aplikazioetan sartzeko, gure erabiltzaileaz eta pasahitzaz gain, mugikorreko Authenticator aplikazioa erabili beharko dugu gure nortasuna egiaztatzeko.

Hasteko, Microsoft Authenticator aplikazioa gure gailu mugikorrean deskargatuta dagoen egiaztatu beharko dugu (mugikor korporatiboetan automatikoki zabaltzen da). Gailuan instalatuta ez badago, gure sistema eragile mugikorrari dagokion dendan bilatuko dugu programa (PlayStore, Android erabiltzen badugu, edo AppStore, IOS erabiltzen badugu). Ikonoa


Automatikoki sortutako deskribapena, konfiantza ertainarekin.

Office 365-en webgunerako sarbidea arauk batek baldintzatzen du, zeinak egiaztatzen duen Osakidetzaren saretik sartzeko den ala ez. Horrela, Osakidetzaren sarearen barruko ekipo batetik sartzean, ez du eskatzen Microsoft Authenticator aplikazioaren bidezko sarbidea onartzeko.

Baldintzapeko sarbidea konfiguratzeko, **Pctik** Office 365-en atarira sartu behar da <https://portal.office.com>, sakatu erabiltzailearen ikonoan, "**Kontuen administratzailea**", eta hautatu "**Ikusi kontua**":



Hautatu **segurtasun-informazioa** pantailaren ezker aldean, eta **Gehitu saioa** hasteko metodoak.



Autentifikazio-metodoa gehitzea **Autentifikazio-aplikazioa**.

Gehitu metodo bat



Zein metodo gehitu nahi duzu?

Autentifikazio-aplikazioa



Utzi

Gehitu

Gogoratu app-a gure gailu mugikorrean deskargatuta eduki behar dugula.
Hurrengoa sakatuko dugu.

Microsoft Authenticator



Lehenbizi, lortu aplikazioa

Telefonoan, instalatu Microsoft Authenticator aplikazioa. [Deskargatu](#)

Gailuan Microsoft Authenticator aplikazioa instalatu ostean, sakatu "Hurrengoa".

Beste aplikazio bat erabili nahi dut autentifikazioa egiteko

Hurrengoa

Beste metodo bat konfiguratu nahi dut

Kontua konfiguratzeko prozesua hasten da. **Hurrengoa** sakatuko dugu.

Microsoft Authenticator



Konfiguratu kontua

Eskatutakoan, onartu jakinarazpenak. Ondoren, gehitu kontu bat eta hautatu "Laneko edo eskolako".

Atzera

Hurrengoa

[Beste metodo bat konfiguratu nahi dut](#)

PCaren pantailan QR kodea duen pantaila erakusten digu, **gailu mugikorrarekin eskaneatu** behar duguna .

Microsoft Authenticator

Eskaneatu QR kodea

Erabili Microsoft Authenticator aplikazioa QR kodea eskaneatzeko. Eragiketa horrek kontuarekin parekatuko du Microsoft Authenticator aplikazioa.

QR kodea eskaneatu ostean, sakatu "Hurrengoa".




Ezin duzu eskaneatu irudia?


Atzera

Hurrengoa


Puntu honetan, **Microsoft Authenticator aplikazioa ireki beharko dugu gure gailu mugikorrean**. Bertan, «**Gehitu kontu bat**» hautatuko dugu. Kontu mota hautatzean, «**Kontu profesionala edo ikaskuntzarako kontua**» hautatuko dugu.



Orain, pantailaren **QR kode bat eskaneatu** behar dugu app-aren konfiguraziotik (puntu horretan, aukera eman behar diogu aplikazioari kamera erabiltzeko).



Automatikoki jakinarazpen bat agertuko da mugikorrean, saio-hasiera onartzeko.



Horrela, bi faktoreko autentifikazioa aktibatzeko prozesua osatuko dugu.

Microsoft Authenticator



✓ Onartu da jakinarazpena

Atzera

Hurrengoa

Beste metodo bat konfiguratu nahi dut

Hemendik aurrera, Office 365-eko gure tresnetara Osakidetza-aren saretik kanpo sartzen garen bakoitzean (Pctik edo mugikorretik), gure erabiltzailea eta pasahitza sartu ondoren, egiaztatzearen bigarren urratsa eskatuko digu, eta eskaera automatiko bat bidaliko digu onartu beharko dugun aplikazio mugikorrera.

Horrela, modu seguru eta eraginkorrean sartuko gara gure Office 365-eko edozein aplikaziotara.